

ILARGIA ETA GIZONA

Doinua: Amurizaren, Euskal Herritik Aparte...



*Xanti Zabala "Lezo"
gaintxurizketa baserriko semea
bertsolarria.*

1

Nonbait dut irakurria,
oso zahar den berria.
Gizonak hoge urte edo da,
jorik ilargia.
Alperrik ez al da ia,
aurrerapenen gurdia.
Zuzendu ezin baldin badugu,
mundu bihurria.

2

Irakurtzean tristura,
nire barruan piztu da.
Ardiak askoz hobeki dabiltz,
artzaïen txistura.
Ezpazioa eskura,
gizonak lehengo estura.
Inundik ere ez dator haize,
berrien freskura.

3

Aurrera doa zientzia,
atzera pazientzia.
Trastoen kutxan gorde den zerbait,
da kontzientzia.
Justiziaren ontzia,
jaso ez den herentzia.
Hitz potoloen bulegoetan,
hor nonbait ahantzia.

4

Gizonak zer du ordea,
bere barruan gordea.
Non du abere arruntak falta,
omen dun kordea?
Berekoikeriz sobrea,
asko badu, nahi doblea.
Haundi nahiaren morroi bizi ta,
hilko den pobrea.

5

Lan gabezia gogorra,
eta bat daiteke zora.
Azken urtetan, baratz goxoan,
mantentzen den lora.
Teknika berriak gora,
hori ongi egongo da.
Baina zergatik ez da banatzen,
lana ta denbora?

6

Eta noski ondorioz,
ozenki badatoz bi hots.
Batzuek erdi goseak eta,
besteak "como dios".
Ez arima ta ez bihotz,
diruaren amodioz.
Lagun hurkoa hor konpon bedi,
ahal duen medioz.

7

Gosearen erasoak,
jota lurralde osoak.
Jaio izana beste errurik,
gabeko gaixoak.
Lurrak eta itsasoak,
dituzten jaki goxoak,
ongi zatitzen ez duelako,
gure "progresoak".

8

Herriak herrien kontra,
galduaz duintasun ondra.
Nor gehiagoka antzu batean,
burutuaz obra.
Gorrotoa dago sobra,
pakea nolatan logra?
Heriotzeko txanpon berdinez,
pagatu ta kobra.

9

Aberria ezin maita,
pekatu astuna baita.
Besteren mende bizi nahi ezak,
joa du hamaika.
Gabiltz negarrez ta ai!-ka,
ezin bestez behar aipa.
Indarrez kendu ziguten dena,
berreskura nahi ta.

10

Euskal Herria bi puska,
eginik etsaiak gauzka.
Hiru probintzi Frantzian mende,
Españak lau dauzka.
Nahiz ez guzieri gusta,
herri burrukaren uzta.
Historiak ta Jainkoak on den,
dezatela juzka.

XANTI ZABALA "Lexo"